


Zeinek irabaziko du aurten: Olentzerok ala Errege Magoek?

EAEko gazteek opari gehiago banatzen eta jasotzen dituzte Olentzeroren izenean, Errege Magoen izenean baino, baina gehiago joaten dira Erregeen kabalgatara Olentzeroren kalejirara baino.

2007an 18 eta 29 urte bitarteko gazteen %65ek zioten beraien familietan opariak Olentzerok ekarri zituela. %58k Errege magoen egunean eman edo jaso zituztela opariak adierazi zuten. Dezente gutxiago ziren, aldiz, Lagun Ikusezinaren izenean (%16) edota Santa Claus edo Papa Noelen izenean (%8) banatu zituztela ziotenak.




Iturria: [Euskal Kultura \(Eusko Jaurlaritzaren Lehendakarietzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, 2007\).](#)

Bestalde, gazteen erdiek baino gehiagok zioten gabonetako bestelako ohitura batzuetan parte hartu zutela, hala nola etxea apaintzea, Gabonetako arbolarekin, belenarekin edo abarrekin (%65), loterian jokatzera (%60) edo zoriontzeko postalak edo mezuak bidaltzea (%51).

Gainera, %32k zioten Erregeen kabalgatara joan zirela, %29k Olentzeroren kalejirara, %12k abesbatzak entzutera, %11k mendira igo zirela Urtezahar gauean edo Urteberri egunean, eta bakarrik %9k zioten mezatara joan zirela Gabon gauean edo Eguberri egunean.

Ohitura horietan guztietan neurri txikiagoan hartu zuten parte gazteek, 18 urtetik gorako biztanleria orokorrak baino.

Gabonetako ohiturak jarraitzen dituztenen portzentajeak



Iturria: [Euskal Kultura \(Eusko Jaurlaritzaren Lehendakarietzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, 2007\)](#)